

2021EKO UZTAILAREN 20AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

- 1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO EKAINAREN 1EKO AKTA).
- 2.- LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN BEHEKO SOLAIRUKO LOKALEN EGOKITZE LANAK KONTRATATZEKO PROIEKTUA (ORDAINSARIEN PROPOSAMENA), BALDINTZEN PLEGUAK ETA KONTRATAZIO DEIALDIA ONARTZEA.
- 3.- 2021EKO UDAL AURREKONTUKO 4/2021 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.
- 4.- KUTXA EKO GUNEA ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEAN 2021EKO EKAINAREN 22AN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENARI EGINDAKO GEHIGARRIA ONARTZEA.
- 5.- 202KO EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.
- 6.- GOIERRI BERRABIARAZIZ PROIEKTUAN PARTE HARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.
7. ALKATETZAREN ERABAKIAK.
- 8.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).
Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Bilkurakide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2021EKO EKAINAREN 1EKO AKTA).

Alkateak, 2021eko ekainaren 1eko aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako akta.

2.- LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN BEHEKO SOLAIRUKO LOKALEN EGOKITZE LANAK KONTRATATZEKO PROIEKTUA (ORDAINSARIEN PROPOSAMENA), BALDINTZEN PLEGUAK ETA KONTRATAZIO DEIALDIA ONARTZEA.

“Ludoteka eta gazteleku erabilera izango duten beheko solairuko lokalak egokitzeko obren” kontratazioa abian jarri eta garatzeko beharra dagoela ikusirik eta udal zerbitzu teknikoek administrazio baldintzen orria zein txostenak osatu dituztelarik.

Era berean, espedienteko dokumentazio teknikoa ikusirik (Ignacio Ibarretxe Pariente arkitektoak idatzitako II fasearen egite proiektu teknikoa); dokumentazio horrek kontratu-balioa du.

Honekin batera adierazten da, kontratuaren zenbatekoa kontuan hartuta, Udalbatzarraren eskumena dela kontratua esleitzea baina, tramitazioari begira, eskaintzak sailkatzeko eta kontratua formalizatzeko alkateari eskuordetza ematea proposatzen da.

Udalbatzarrak, bertaratutako kideak aho-batez onarturik, honako hau onartzen du:

LEHENENGOA.- Idatzitako Egite Proiektua onartuz, “Ludoteka eta gazteleku erabilera izango duten beheko solairuko lokalak egokitzeko obren” kontratazioa garatzeko obra kontratazio-espedientea hastea, jardunbide ireki eta presazko izapideak erabiliz.

BIGARRENA.- 307,852,48 euroko gastua onartzea; horietatik, 254.423,54 euro printzipalari eta 53.428,94 euro %21eko BEZari dagozkie, honako aurrekontu izendapen honen lepotik:

1.0000.622.01.334.00.2021 eta 1.0000.622.01.334.00.2020.

HIRUGARRENA.- Lizitazioa eta kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria eta kontratua eta lizitazioa arautuko duten gainontzeko agiri teknikoak onartzea. Era berean aurkeztutako ordainsarien proposamena onartzen da.

LAUGARRENA.- Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia kontratugilearen profileen argitaratzea, lizitatzailerek euren proposamenak hogeita sei (26) egun naturaleko epean aurkez ditzaten, iragarkia argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita. Tramitazioari begira, eskaintzak sailkatzeko eta kontratua formalizatzeko alkateari eskuordetza ematea.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen berri Kontabilitate unitateari ematea.

ERREKURTSOAK

—Ebazpen horren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote erabakia emandako organoari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera. Deialdia egiteko epea hilabetekoa izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

—Hala ere, berraztertze-errekurtsoarean ordeztu edo berraztertze-errekurtsua ebazteko erabakiaren aurka eginez gero, interesdunek administrazioarekiko auzierrekurtsua aurkeztu ahal izango dute zuzenean. Horretarako epea bi hilabetekoa izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekurtsuak Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegian aurkeztu beharko dira. Bestalde, administrazioak berraztertze-errekurtsua ebazten ez badu, interesdunek administrazioarekiko auzierrekurtsua jarri ahal izango dute sei hilabeteko epean, berraztertze-errekurtsua jartzen den egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia interesdunaren eskubideak hobeto defendatzeko egokitzat jotzen den beste edozein errekurtsu jartzeari kalterik egin gabe.

3.- 2021EKO UDAL AURREKONTUKO 4/2021 KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldatetaren 2021-KALD-000004-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau, erabaki du:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	17.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	9.785,00
6	INBERTSIO ERREALAK	31.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		58.285,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	58.285,00
GUZTIRA		58.285,00

Bigarrena.- Jendurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4.- KUTXA EKOGUNEA ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEAN 2021EKO EKAINAREN 22AN SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENARI EGINDAKO GEHIGARRIA ONARTZEA.

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2021eko ekainaren 1ean egindako bilkuran, Kutxa Ekoguneak eta Zegamako Udalak, Baratze Parke Sarea eta Zegamako Baratze Parkea sustatzeko egiten duten elkarpena eta bere gain hartzen dituzten egitekoak eta betebeharrak arautzen dituen hitzarmena onartu zuen.

Horren arabera, adierazitako hitzarmena sinatu zen 2021eko ekainaren 22an.

Kutxa Ekoguneatik jakinarazi da, bere zerbitzu orokorreko lankideek hitzarmeneko zortzigarren klausula aldatzea beharrezkotzat iritzi dutela eta horrenbestez, aldaketa hau bideratzeko eskaera egin zaio Zegamako Udalari.

Hau da, hitzarmenaren aldaketako testu osoa:

“ KUTXA EKOGUNEA ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEAN 2021eko EKAINAREN 22an SINATUTAKO LANKIDETZA-HITZARMENARI EGINDAKO GEHIGARRIA

ADENDA AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE KUTXA EKOGUNEA Y AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA CON FECHA 22 DE JUNIO DE 2021.

2021eko xxren xxa

xx de xx de 2021

Alde batetik, KUTXAGESTION ZERBITZUAK SLU (aurrerantzean, KUTXA EKOGUNEA), B-75146043 I.F.Z. zenbakia duena eta helbidea Mikeletegi Pasealekuko 45. 20.009 Donostia duena. Ekitaldi honetan Ander Aizpurua Susperregui jauna izango da haren ordezkaria, adinez nagusia eta NAN zk.: 44168858A zenbakia duena. Hark Guadalupe María Inmaculada Adánez García Notario andrearen aurrean (protokolo-zenbakia: 672) 2018ko apirilaren 5ean emandako ahalmenaren indarrez jarduten du.

De una parte, KUTXAGESTION ZERBITZUAK S.L.U. (en adelante KUTXA EKOGUNEA), con NIF B-75146043 y domicilio en Paseo Mikeletegi 45, 20.009 Donostia-San Sebastián. En este acto estará representado por D. Ander Aizpurua Susperregui, mayor de edad, con el D.N.I. nº 44168858A, que actúa en virtud de la facultad otorgada el 5 de abril de 2018, ante la Notaría doña Guadalupe María Inmaculada Adánez García (número de protocolo: 672).

Bestetik, ZEGAMAKO UDALA (aurrerantzean UDALA), Joseba Izagirre Arozena jauna (NAN zk.:

De otra parte, el AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA (en adelante EL AYUNTAMIENTO), cuyo representante será

08.924.269Q) alkatea izango delarik haren ordezkaria.

Aurrerantzean Aldeak izango dira.

Bi aldeek, arestian aipatu den ordezkariarekin, elkarri gaitasun juridiko osoa aitortzen diote gehigarri hau sinatzeko, eta, horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Aldeek 2021eko ekainaren 22an lankidetzahitzarmena sinatu zutela elkarlanean Zegamako Baratze Parkea garatzen eta Baratze Parke Sarea bultzatzen jarraitzeko.

BIGARRENA.- Aldeek Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko hitzarmenaren zortzigarren klausularen edukia aldatu nahi dutela, hurrengo klausulen bidez artikulatuko dena.

KLAUSULAK

LEHENA.- Lankidetzahitzarmena berrestea.

KUTXA EKOAGUNEAK eta ZEGAMAKO UDALAK osorik berresten dute 2021eko ekainaren 22an sinatutako lankidetzahitzarmena eta haren eranskin guztiak, gehigarri honetan espresuki xedatutakoa eta baimendutakoa izan ezik.

BIGARRENA.- Hitzarmeneko zortzigarren klausula aldatzea.

Hitzarmeneko zortzigarren klausulan testu hau gehitzea erabaki dute Aldeek, dagoen idazketaren ondoren:

“Kutxa Ekoguneak, bere langileren batek Baratze Parkera joan behar duen bakoitzean Udalarari jakinaraziko dio bost lanegun lehenago, honek Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan behar diren jarduketak egin ditzan.”

Horrela, zortzigarren klausulak testu hau izango du aurrerantzean:

“Bi aldeek hitzarmenaren dute zorrotz beteko dutela Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 171/2004 Errege Dekretuan enpresa-jardueren koordinazioari buruz ezarritakoa.

Kutxa Ekoguneak, bere langileren batek Baratze Parkera joan behar duen bakoitzean Udalarari jakinaraziko dio bost lanegun lehenago, honek Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan behar diren jarduketak egin ditzan.”

HIRUGARRENA.- Gehigarri honen izaera aldatzailea, itzaltzen ez dena.

el alcalde D. Joseba Izagirre Arozena con D.N.I. nº 08.924.269Q.

En adelante, se denominarán conjuntamente las Partes.

Ambas partes, con la representación que anteriormente se ha descrito, se reconocen recíprocamente plena capacidad jurídica para suscribir la presente adenda, y a tal fin,

EXPONEN

PRIMERO.- Que con fecha 22 de junio de 2021 las Partes han firmado un convenio de colaboración con el objeto de seguir colaborando en el desarrollo del Parque de Huertas ubicado en Zegama así como en el fomento de Baratze Parke Sarea.

SEGUNDO.- Que es voluntad de las Partes modificar el contenido de la cláusula octava del convenio referente a la Prevención de Riesgos Laborales, lo que articulan a través de las siguientes cláusulas.

CLÁUSULAS

PRIMERA. - Ratificación del Convenio de Colaboración.

KUTXA EKOAGUNEA y ZEGAMAKO UDALA ratifican íntegramente el convenio de colaboración suscrito el 22 de junio de 2021 y sus anexos, en todos sus términos, salvo por lo expresamente dispuesto y consentido en la presente adenda.

SEGUNDA.- Modificación de la cláusula octava del convenio.

Las partes acuerdan añadir a continuación de la redacción existente, el siguiente texto en la cláusula octava del convenio:

“Kutxa Ekogunea comunicará al Ayuntamiento con cinco días laborables de antelación cuando tenga que desplazar alguna persona de su plantilla al Parque de Huertos, a los efectos de realizar las actuaciones pertinentes en materia de Prevención de Riesgos Laborales.”

De esta forma la cláusula octava tendrá en adelante la siguiente redacción:

“Ambas partes se comprometen al estricto cumplimiento de lo previsto en el Real Decreto 171/2004 de Prevención de Riesgos Laborales, en materia de coordinación de actividades empresariales.

Kutxa Ekogunea comunicará al Ayuntamiento con cinco días laborables días naturales de antelación cuando tenga que desplazar alguna persona de su plantilla al Parque de Huertos, a los efectos de realizar las actuaciones pertinentes en materia de Prevención de Riesgos Laborales.”

TERCERA. - Carácter modificativo no extintivo de la presente adenda.

Aldeek adierazten dute hitzarmena aldatu egin dela gehigarri honetan ezarritakoaren kontra doan guztian, eta gelditzen den guztian indarra eta eraginkortasuna mantenduko dituela.

Las Partes declaran que el convenio queda modificado en todo lo que se oponga a lo establecido en esta adenda manteniendo su plena vigencia y eficacia en todo lo restante.

Eta behar diren ondorioak izan ditzan, Aldeek gehigarri hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio bakarrerako, idazpuruan adierazitako egunean.

Y para que surta los efectos oportunos, las Partes suscriben la presente adenda por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en la fecha consignada en el encabezamiento.

Kutxagestion Zerbitzuak S.L.U.
Ander Aizpurua Susperregui

Zegamako Udala
Joseba Izagirre Arozena"

Udal Idazkariak hitzarmenaren onarpenarekiko lege txostena bideratu du.

Onarpen proposamena bideraturik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehenengoa.- Kutxa Ekoguneak eta Zegamako Udalak, Baratze Parke Sarea eta Zegamako Baratze Parkea sustatzeko egiten duten elkarpena eta bere gain hartzen dituzten egitekoak eta betebeharrak arautzen dituen hitzarmenaren aldaketa (gehigarria) azaldutakoaren arabera onartzea.

Bigarrena.- Alkate udalburuari ahalordea ematea hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Lankidetzaz hitzarmena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web gunean argitaratuko da.

Laugarrena.- Interesdunei jakinaraztea.

5.- 2020KO EKITALDIKO URTEKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2020ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2021eko ekainaren 28ko 120 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

- 1) 2020ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

6.- GOIERRI BERRABIARAZIZ PROIEKTUAN PARTE HARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak, Goieki-tik helarazitako "Goierri Berrabiaraziz" proiektua helarazi da, parte hartu

nahi duten udal bakoitzak egin beharreko ekarpen taula jasotzen duena.

Horrenbestez, Zegamako Udalak onartu beharko lukeen ekarpena 9.785,00 eurokoa dela azalduz (2021 urtean 5.871,00 euro eta 2022 urtean 3.914,00 euro), proiektua jaso da honakoaren arabera:

EKIN eta
EGIN!

GOIERRI BERRABIARAZIZ

 **Goieki**
— EGOKERRO GARAPEN AGENTZIA —

EKINTZA PLANA 2021/2022

1 PROIEKTUEN EGOERA

1.1 PROIEKTUEN TESTUINGURUA ETA JUSTIFIKAZIOA

INDUSTRIA ARLOA

1. **MUBIZING ESTRATEGIA/ELEKTROMUGIKORTASUNA (hasita):** GFAk onartutako egitasmoa, Sektore honetako eragile kritikoekin elkarriketak egin dira eta strategiaren garapena gauzatuko dugu datozen hilabeteetan.
2. **ENPRESAK ERALDATUZ/TALENTUA + TXERTATUZ (hasita):** GFAk onartutako egitasmoa. Lehenengo fasea amaitzen ari da (8 salo) eta orain enpresa bakoitzarekin lanketa berezi bat egingo da saio horietan ikasitakoa txertatzen joateko asmoz.
3. **ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA/HIDROGENOA (hasita):** Pertsona bat hartu dugu praktiketan (Gradu amaierako proiektua) eta balio katea aztertzen hasi da. Informazio hau enprekin partekatuko da dibertsifikazio aukerak aztertzeko.
4. **DIGITALIZAZIOA/DIGINNOVA+4.0 KATALOGOA (prestatzen):** Diginnova proiektua prestatu dugu eta laster jarriko dugu martxan. Era berean katalogorako edukiak ere lantzen hasteko ere prest gaude (udazkena).
5. **NAZIOARTEKOTZEA/LANTALDEA+SENSIBILIZAZIOA+MISIOAK (prestatzen):** lantaldea osatu da eta estrategia lantzeko galdetegi bat bidali behar diegu enpresei. Galdetegi horren emaitzeekin estrategia garatuko dugu eta ondoren sentzibilizazio saioak eta misioak etorriko dira (urte amaiera aldera edo 2022 hasiera).

EKINTZAILETA ETA ZERBITZUAK

1. **ETENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (hasita):** Goierri Eskolarekin formakuntza saioak diseinatu ditugu eta Elkargi, le-team-ekin ere horretan gabilta. Guzti honen difusioa egiten hasiko gara eskualde mailan alde batetik eta herri mailan udalekin batera beste batetik (programa osoan zehar).
2. **INDARGUNE EKIMENA (hasita):** egoera kritikoan dauden negozioei eskainitako laguntza zuzena. Horretarako bi aholkularitza etxeekin plangintza bat diseinatu dugu eta detektatutako beharren arabera batek edo bestek parte hartzen du ekimenean (programa osoan zehar).
3. **GOIERRIKO AZOKA/GARAPENA/KOMUNIKAZIOA (hasita):** plataforma garatuta dago eta negozioak poliki-poliki integratzen ari dira, **Ekainean** egingo dugu aurkezpen ofiziala.
4. **GOIERRIKO AZOKA/AHOLKULARITZA/FORMAKUNTZA (prestatzen):** negozio bikien digitalizaziorako sentzibilizazio eta formakuntza saioak (udazkenetik aurrera).
5. **BERRABIARAZI KOMUNIKAZIOA (prestatzen):** mailatza bukaeran eman nahi zaio ofizialki hasiera ekimenari Golekiko administrazio kontseilua izan ondoren (programa osoan zehar).
6. **ESKUALDEKO MERKATARITZA MAHAIA (prestatzen):** bilera pare bat egin dira eta Merkataritza mahaia begi onez eta interesgarri ikusi ditu proposatutako ekintzak.

2 PROIEKTUAREN AURREKONTUA

2.1 AURREKONTU PROPOSAMENA

GASTUAK

PROIEKTUAK	AURREKONTUA
BERRABIARAZI DIAGNOSTIKOAK	73.000€ (%100)
MUBIZING ESTRATEGIA (ELEKTRO MUGIKORTASUNA)	37.136€ (%100)
ENPRESAK ERALDATUZ (TALENTUA)	74.000€ (%75)
NAZIOARTEKOTZEA (MISIOAK/AZOKAK)	27.000€ (%45)
ERALDATUZ TXERTATUZ (TALENTUA)	12.000€
DIGIINNOVA (DIGITALIZAZIO ESTRATEGIA)	33.000€
DIGITALIZAZIO ESTRATEGIA (4.0 KATALOGOA)	15.000€
ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA (HIDROGENOA)	12.000€
NAZIOARTEKOTZE ESTRATEGIA LANTALDEA	12.000€
NAZIOARTEKOTZEA (SENSIBILIZAZIO SAIOAK)	15.000€
ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (Goierni Eskola, Elkargi, Deusto BS, e.a.)	55.000€
INDARGUNE EKIMENA (ETE-EN LEHIAKORTASUNA)	30.000€
GOIERRIKO AZOKA PLATAFORMA (KOMUNIKAZIOA)	18.000€
ESKUALDEKO MERKATARITZA MAHAIA (ESTRATEGIA)	12.000€
BERRABIARAZI KOMUNIKAZIOA	38.000€
GUZTIRA	463.136€

2.2 BIDERAGARRITASUN EKONOMIKOA

SARRERAK

Diruz lagundutako proiektuak (GFA, EJ)	177.786€
Kofinanziazio beharra duten proiektuak	33.350€
Finantziatorik gabeko proiektuak	252.000€
GUZTIRA FINANTZIAZIO BEHARRAK	285.350€

2.3 UDALEN EKARPENAK

	BIZTANLEAK	ENPRESA SAREA (95€/ENPRESAKO)	EKARPEN PROPOSAMENA
BEASAIN	13.880	1.018 (98)	96.710€
ORDIZIA	10.394	737 (74)	70.015€
LAZKAO	5.742	337 (52)	32,015€
IDIAZABAL	2.312	188 (25)	17.860
OLABERRIA	953	123 (20)	11.875€
ATAUN	1.693	104 (9)	9.880€
LEGORRETA	1.417	90 (9)	8.550€
ZALDIBIA	1.613	105 (10)	9.975€
ORMAIZTEGI	1.276	93 (15)	8.835€
ZEGAMA	1.528	103 (15)	9.785€
SEGURA	1.467	92 (7)	8.740€
GUZTIRA	42.275	2.990 (334)	285.350€

2.4 PLANGINTZA PROPOSAMENA

Ekaina 2021-Abendua 2021

Orain arte garatutako ekintzak eta datozen sei-hilabeteen abian jarriko diren ekimenak honako hauek izango dira:

PROIEKTUAK (2021)	AURREKONTUA
BERRABIARAZI DIAGNOSTIKOAK	73.000€ (%100)
MUBIZING ESTRATEGIA (ELEKTRO MUGIKORTASUNA)	37.136€ (%100)
ENPRESAK ERALDATUZ (TALENTUA)	74.000€ (%75)
ERALDATUZ TXERTATUZ (TALENTUA)	12.000€
DIGIINNOVA (DIGITALIZAZIO ESTRATEGIA)	33.000€
DIGITALIZAZIO ESTRATEGIA (4.0 KATALOGOA)	15.000€
ENPRESEN DIBERTSIFIKAZIOA (HIDROGENOA)	12.000€
NAZIOARTEKOTZE ESTRATEGIA LANTALDEA	12.000€
ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (Goierni Eskola, Elkargi, Deusto BS, e.a.)	25.000€
INDARGUNE EKIMENA (ETE-EN LEHIAKORTASUNA)	12.000€
GOIERRIKO AZOKA PLATAFORMA (KOMUNIKAZIOA)	18.000€
BERRABIARAZI KOMUNIKAZIOA	18.000€
GUZTIRA	341.136€

Diruz lagundutako proiektuak (GFA, EJ)	165.636€
Kofinantziazio beharra duten proiektuak	18.500€
Finantziaziorik gabeko proiektuak	157.000€
GUZTIRA FINANTZIAZIO BEHARRAK (Ekaina-Abendua 2021)	175.500€

Beraz, gure proposamena orain aurrekontuaren %60a jartzea izango litzateke eta gainontzeko %40a urte amaieran, proiektuen jarraipena eta balorazioa egin ondoren.

Momentu horretan ziurtatuta badaukagu aurreikusitako ekintzak garatzeko dirulaguntza gehiago jasoko ditugula, berriro baloratuko dugu aurrekontua eta falta den ekarpena agian txikitu daiteke.

PROIEKTUAK (2022)	AURREKONTUA
NAZIOARTEKOTZEA (MISIOAK/AZOKAK)	27.000€ (%45)
NAZIOARTEKOTZEA (SENSIBILIZAZIO SAIOAK)	15.000€
ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK (Goierni Eskola, Elkargi, Deusto BS, e.a.)	30.000€
INDARGUNE EKIMENA (ETE-EN LEHIAKORTASUNA)	18.000€
ESKUALDEKO MERKATARITZA MAHAIA (ESTRATEGIA)	12.000€
BERRABIARAZI KOMUNIKAZIOA	20.000€
GUZTIRA	122.000€

Diruz lagundutako proiektuak (GFA, EJ)	12.150€
Kofinantziazio beharra duten proiektuak	14.850€
Finantziaziorik gabeko proiektuak	95.000€
GUZTIRA FINANTZIAZIO BEHARRAK	
(Urtarrila-Ekaina 2022)	109.850€

UDALENTZAKO FINANTZIAZIO PROPOSAMENA

	2021 URTERAKO EKARPENA (EKAINA)	2022 URTERAKO EKARPENA (URTARRILA)	EKARPEN OSOA
BEASAIN	58.026€	38.684€	96.710€
ORDIZIA	42.009€	28.006€	70.015€
LAZKAO	19.209€	12.806€	32,015€
IDIAZABAL	10.716€	7.144€	17.860€
OLABERRIA	7.125€	4.750€	11.875€
ATAUN	5.928€	3.952€	9.880€
LEGORRETA	5.130€	3.420€	8.550€
ZALDIBIA	5.985€	3.990€	9.975€
ORMAIZTEGI	5.301€	3.534€	8.835€
ZEGAMA	5.871€	3.914€	9.785€
SEGURA	5.244€	3.496€	8.740€
GUZTIRA	170.544€	113.696€	284.240€

BERRABIARAZI INDUSTRIA

MUBIZING ESTRATEGIA

Elektromugikortasuna eta mugikortasun berria, etorkizuneko sektore bezala daude identifikaturik. Goierrin badira sektore hauetan erreferente diren enpresak, besteak beste, CAF, IRIZAR, INDAR, etab.

Proiektu honen helburua sektore honen gaur egungo Goierriko balio katea aztertzea da eta, enpresa eta entitate erreferenteekin kontatuz, Goierrri Valleyk sektore horretan izango duen rola definitzea izango da. Rol hau Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren helburuen alineaturik egongo da.

Emaitza bezala sektoreko erronkak identifikatu nahi dira enpresen dibertsifikazioa, negozio berrien sorkuntza, bailara erreferente bat izatea eta agente ezberdinen arteko elkarlana izango dira.

DIGITALIZA GOIERRI (DIGINNOVA)

Enpresen etorkizuna bermatzeko ezinbestekoa da kudeaketa eredu aurreratuak izatea enpresetan. Transformazio digitala da horietako erreminta bat.

Goierrriko enpresetan, orohar, digitalizazio maila baxua ikusi da eta aldaketarako beharra dagoela ondorioztatu da.

Landuko den proiektuk hiru helburu nagusi ditu:

- Enpresetako ordezkariak formatu eta sentsibilizatu gai hauetan, ondoren pertsona horiek enpresetako transformazio digital hori lideratzeko
- Enpresa bakoitzean azterketa burutu eta non dagoen erronka identifikatu
- Transformazio hori emateko enpresaren neurmirako ekintza plan bat definitu.

Proiektu hau bailarako ETEei zuzenduta izango da, Berrabiarazi proiektuan gai honen beharra markatu dutenak lehenetsiko direlarik.

4.0 KATALOGOA

Aurreko proiektua indartzeko, 4.0 katalogo bat egingo da Goierrriko enpresek 4.0 teknologiak nola txertatu dituzten erakutsiko duena. Bailarako praktika onak identifikatuko dira eta katalogo batean jarriko dira. Honekin beste enpresek praktika horietatik ikasi dezakete euren enpresetan aplikatzeko.

Lehenengo galdetegi bat luzatuko da enpresen artean. Hortik praktika horiek identifikatu eta azkenik katalogo batean jasoko dira bailarako enpresen eskura jarriko dena.

HIDROGENOA

Mugikortasun berria bezala, Hidrogenoa ere etorkizuneko sektore bezala dago identifikaturik. Are gehiago, mugikortasun berriaren barmean txertatzen den azpisektore bat bezala definitzen da.

Goierrin badira interes asko duten enpresak eta erreferente direnak euren sektoretan gainera. Proiektu honetan ere Goierrri eta Euskadiko balio katea aztertu nahi, hemendik etorkizuneko erronkak identifikatzeko eta hortik negozio aukerak ekartzeko.

NAZIOARTEKOTZEA

Berrabiarazi proiektuan egin diren bisitetan, dibertsifikazioaz gain, nazioartekotze aukerak atera dira. Enpresen, bezero berriak bilatzeko interesa herrialde berrietan.

Enpresa txikiak banaka bide hau lantzea zaila dute, beraz, elkartana erreminta bezala harturik, nazioartekotze estrategia bat garatuko da. Hau burutzeko, eta honi jarraipena egiteko, nazioartekotze mahai bat osatu da Goierri Valleyn. Mahai honen helburua estrategia bateratu hori garatzea izango da.

Lehen pausu bezala, Eteetan nazioartekotze galdetegi bat pasatzea aridostu da. Galdetegi horrekin ekintzak, herrialdeak eta azoka internazionalak lehenetsiko dira. Behin hau identifikatutakoan, ekintza zehatzak definituko dira.

NAZIOARTEKOTZEA SENTSIBILIZAZIOA

Alpatu den nazioartekotze mahai horrek, estrategiko bezala markatu du, bidaiatu ezin den garai hauetan, formakuntza eta sentsibilizazioa lantzea nazioartekotzeari begira. Beraz, datorren hilabeteetan, nazioartekotze estrategia lantzen den bitartean, saio ezberdin antolatuko dira:

- Herrialdeetako informazioa
- Praktika onak ezagutu
- Sentsibilizazio jardunaldiak
- Etab.

Hauetako nazioartekotze estrategia lantzeko galdetegitik ateratako informazioaren ostean definituko dira.

FORMAKUNTZA

Bisita gehienetan formakuntza gaiaren beharra azaldu dute enpresek. Formakuntza oso zabala da eta enpresa bakoitzak interesatuko litzaiokeen gaiena antolatzeko proposamena burutu du.

Proposamen guztiak aztertu ostean, "kudeaketa orokorra" gaiari erantzuten dion formakuntzarekin hastea erabaki da. Izan ere interes gehiena piztu du eta bailaran dugun Goierri Fundazioaren eskutik eman genezake.

Goierri eskolaren proposamena "kudeaketa orokorra" formakuntza 5 tailer ezberdinetan ematea da:

- Estrategia lantzea
- Estrategiari jarraipena egin (indikatzailak, jarraipen kontrola, etab.)
- Plan ekonomiko finantzarioa
- Pertsonen polibalentzia eta kudeaketa
- Balio proposamena eta markaren erabilera.

Formakuntzaren barnean gai gehiago ere lehenetsi dira eta aurrerantzean erantzuna emateko formakuntzak antolatuko dira.

BERRABIARAZI EKINTZAILTZAZA ETA ZERBITZUAK

ETE-ENTZAKO FORMAKUNTZA SAIOAK

Burutu diren diagnosi guztietatik behar ezberdinak identifikatu dira formakuntza eta kapazitate gaitan. Industriara eta ekintzailetzara bideratuko diren gai batzuk antzekoak izan arren, mailak ezberdinak izango dira eta behar ezberdinetara egokitu egingo dira. Formakuntza Saioa urte beteko epean zehar jorratuko den ekintza izango da eta orain arte identifikatu diren gaiak eta prestatzen hasi diren saioak hauek izan dira:

- Enpresa kudeaketa, Estrategia, diru-zaintza kudeaketa, pertsonak, etab.
- Goleerrin zerbitzu sektorearen lehiakortasuna eta berrikuntza sustatzeko plana. Ekimen hau merkataritza mahala osatzen duten kideekin kontrastatuko da. Ie-Team Consultores taldearekin antolatzen ari gara.
- Finantzazio negoziaketa, finantzak gaiak, etab. Elkargi-rekin prestatzen.
- Sare sozialen txertaketa eta kudeaketa.
- Ticket bai eta bere ondorioak.

INDARGUNE

Indargune espazio bat da non bere helburua zailtasunekin dauden enpresei aholkularitza espezifikoa eta zuzenagoa ematea da. Horretarako aholkulari adituekin lankidetzaz dugu, kasuan kasuko irtenbide egokiak emateko helburuarekin.

GOIERRIKO AZOKA PLATAFORMA

Goleerriko Azokaren aurkezpen ofiziala ekainaren 29an egingo da eta hemendik aurrera ekintza ezberdinak burutuko dira bai, negozio eta establezimendu txikiak plataforman atxikitzeko eta bai, herritarrak proiektuaren eta plataformaren berri izateko eta honen bidez eskualdeko tokiko negozioetan kontsumitzeko helburuarekin.

ESKUALDEKO MERKATARITZA MAHAIA

Egindako diagnostikoetatik lortu dugun informazioari esker, etorkizunean sektore honi eman beharreko irtenbideak partekatzeak aukera bikaina ikusi dugu eta hau guztia merkataritza mahaiarekin kontrastatu nahi izan da. Alde batetik, mahai honetan parte hartu duten eragile guztien onespina eta begi ona lortu da jarraipena emateko, eta beste alde batetik, mahai honen koordinazioa norik bultzatu behar duenaren debata irten da. Beraz, mahai honek gai honi buruzko iritzia eta proposamen bat luzatzeaz gain, amankomunean aurrera eramane daitezkeen ekimenak identifikatuko dira. Orain arte, eskualdeko merkataritza sektorearen estrategiaren definizioa eta formakuntza planak lehenetsi dira.

BERRABIARAZI KOMUNIKAZIOA

Orain arte Berrabiarazi proiektuko definizio, helburu eta diagnosi fasearen berri eman da, kanal desberdinen bitartez informazioa zabalduz; Web gunean, Goleerriko Newsletter-ean, Goleerriko Sare Sozialetan (Facebook, Twitter eta LinkedIn), Goleerriko mailako hedabide desberdinetan (Goleerriko Teledista, Hitzza, Goleerriko...), prentsan (Noticias de Gipuzkoa, Berria,...) eta udalez udal egindako aurkezpenetan. Udaletako batzuk beraien web gune eta sare sozialetan komunikazioa zabaldu dute baita ere. Martxoan jarriko den ekintza planari dagokionez, lehenik, lehen faseko emaitzak azalduko dituen Newsletter bat bidaliko da eta ondoren, ekintza bakoitzaren inguruan beharrezkoa den komunikazioa egingo da; Newsletter zehatzetan deialdiak zabalduz, web orrialdean, boletinean, sare sozialetan, prentsan, aurkezpen jardunaldiak prestatuz, e.a.

Proiektuaren xedea eta ekarpen taula aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta horiek 2021eko udal aurrekontuan jasota daudela azalduz, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- "Goleerriko Berrabiaraziz" proiektuan parte hartzea onartzea.

Bigarrena.- 2021ko Udal aurrekonturako aurreikusitako zenbatekoaren arabera ekarpen

horiek onartzea eta dagozkion ordainketa epealdietan bideratzea. Horren arabera, 2021 urteko 5.871,00 euroko ekarpena uztailaren 31 baino lehen egingo da.

Hirugarrena.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

7. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 01/0621 erabakia, ekainaren 1ekoa, udaleku irekietako hezitzaile hautatuen zerrenda onartuz.
- 02/0621 erabakia, ekainaren 2koa, "Urbizu Zegama S.L. hegazti-ustiakuntzan ontziratze nabea erreformatzeko" lana egiteagatik eta aurkeztutako lanen amaierako egite-aurrekontuaren arabera, egindako 1.457,47 euroko behin-betiko kitapena onartuz.
- 03/0621 erabakia, ekainaren 12koa, 12 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina); guztira 46.557,66 euro onartuz.
- 04/0621 erabakia, ekainaren 15ekoa, etxebizitzan lanak egiteko lan baimena emateari buruzkoa.
- 05/0621 erabakia, ekainaren 16koa, Labe-Lan S.L. enpresan ganbaratxo bat egiteko lan baimena emanaz.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iurretagoiena zinegotziak (EH Bildu) herriko zenbait eremutan arratoiak daudela adierazi diotela azaltzen du. Alkateak erantzuten du jakinaren gainean badaudela, eta udalera zenbait herritar zuzendu direla hau azaltzeko. Zentzu honetan, udal langile arduradunari, eragindako eremuetan arratoi-pozoia zabaltzeko agindua eman zaio eta hau bota dela adierazten da. Nolanahi ere, hau botatzeko neurri bereziak hartu behar direla adierazten du, horiei buruz eztabaidatzen delarik.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hamabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2021ekok

**O.E./ V°B°
ALKATEAK/EL ALCALDE**

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2021.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO